

2014ko ABENDUA

16.ZENBAKIA



A
L
D
I
Z
K
A
R
I
A

E
H
E
G
O
L
G
U

**EUSKAL HERRIKO GORREN LAGUN ETA GURASOEN
ELKARTEEN FEDERAKUNDEA**

E D I T O R I A L A

**Dagoeneko hain berri ez diren
TEKNOLOGIAK ERABILTZEA**



Argi dago teknologia berriek aurrerapauso garrantzitsua ekarri dutela gure taldeko guztientzat; izan ere, oso elementu garrantzitsua bihurtu da gure seme-alaben autonomiarako eta, horrez gain, berehala eta edozein egoera eta tokitan daudela kontaktuan jartzeko aukera eskaintzen die.

Hala ere, aurrerapenekin batera, kontrol ezaren edo teknologien erabilera ausartegiaren ondorioz badira ere zenbait "arriku". Teknologiak modu arduratsuan erabiltzea ezinbestekoa da, gaizki erabiliz gero geure burua edo beste batzuk arrisku-egoeran ez jartzeko.

FEVAPASentzat arazo kezagarria da. Hori dela-eta, gai horren inguruan trebakuntza-programa bat abian jartzea erabaki dugu. Senideentzako zein seme-alabentzako programa bat da, eta teknologiek zer abantaila dituzten eta gaizki erabiliz gero zer ardura izango ditugun azalduko dugu.

Informazioa ematen jarraituko dugu



FEVAPASEN 2014KO PROGRAMA

GIZARTERATZEKO JARDUERAK

Aisialdirako hezkuntza programak/ Euskadin entzuteko desgaitasuna duten haurrentzat eta gazteentzat.



Martxoaren 14tik 16ra bitartean, entzuteko desgaitasuna duten eta entzuten duten neska-mutilek parte hartu zuten **Espejon (Araba)** egindako jarduera eta dinamiketan.

Uztailaren 1etik 9ra bitartean, 7 eta 14 urte bitarteko zenbait neska-mutil (gor zein entzule), **Beiren (Nafarroa)** izan ziren eta mota askotako jarduera, tailer eta jolas burutu zituzten. Federazioko gazteen taldearen eta Bielorrusiako 15 gorren bisita izan zuten.

Aurten ere, esperientzia ona eta polita izan zen.

11 eta 14 gazte gor bitarteko taldeak (15 eta 19 urte bitartekoak) urtean buruan lan egin du zenbait talde-bilera, -eztabaida eta -topaketa programatu, burutu, koordinatu eta ebaluatzeko:

☞ **Martxoaren 14tik 16ra txikiekin**, Espejon, beraientzako jarduerak antolatu eta egin zituen, baita uztaileko irteera antolatu ere.

☞ **Bi bilera, otsailaren 15ean eta apirilaren 12an**, Gasteizen eta Bilbon, hurrenez hurren/ Lana eta talde-kohesioa

☞ **Uztailaren 5ean** udako kanpamenduak bisitatu zituzten, eta egun osoan zuzendaritza hartu, eta txikientzat erreferentziatzko irudi bihurtu ziren.

☞ **Uztailaren 25etik 27ra**, Taldearen topaketa Lekeition. Zenbait kirol-, lankidetzeta- eta talde-jarduera gauzatu zituzten, eta ondoko gaia landu eta eztabaidatu zuten: "Gizarte gaitasunak/ Gatazkak ebaztea"



BOLUNTARIOAK – Monitorea

Aipatutako jarduera horiek guztiak ezingo genituzkeen egin Fevapasen ditugun monitorea boluntarioen lanagatik eta lankidetzagatik ez balitz.

BALIOETAN HEZTEA- GENERO-BERDINTASUNA / HEZKIDETZA

Monitorea trebatzeko ikastaroaren titulua da. Ikastaro hori **azaroaren 15ean Vitoria-Gasteizko Iparralde Gizarte-etxean** egin zen. **13 pertsonak** hartu zuten parte (entzuteko desgaitasuna dutenak eta gor ez direnak). Urtxintza 'Eskolako profesional batek eman zuen ikastaroa, eta bi zeinu-mintzairako interprete interpretazioaz arduratu ziren.



FAMILIEN PROGRAMA

Aurten ere Fevapasek Elkarte Federatuak koordinatu ditu, familiei arreta egiteko eta laguntzeko lana batera egiteko.

Senideen eta desgaitasuna dutenen BIZI-KALITATEA HOBETZEKO, ondoko LAN KOORDINATUA egin da:



Ondokoak landu dira:

Orientazio eta informazio eguneratu, objektibo, zabala eta zehatza
Laguntza psikologiko eta emozional
Familientzako informazio eta trebakuntza.



Baliabideak ondokoak izan dira:

Arreta zuzena eta kasu bakoitzaren jarraipena // Banakako eskakizunen kudeaketa
Ama/aita eta ama/aita arteko laguntza // Hausnartzeko eta trebatzeko Taldeak
Laguntza psikologikoa // Profesionalen arteko aldian aldiko koordinazioa.
Familien arteko topaketak // Hitzaldiak eta trebatzeko eta informatzeko ekintzak
Gizarterako jarduerak...

Fevapas INFORMAZIOA



14.07.31 - EUSTAT
SS urteko inkesta

14.04.01/ 14.09.08 – Bilera Iñigo Pomborekin, Gizarte Politiken sailburuordearekin, eta Lide Amilibiarekin, Gizarte Zerbitzuetako Zuzendariarekin // 14/15 Diru-laguntza

izendunaren jarraipena // Zeinu-mintzairako interprete zerbitzuari buruzko informazioa

14.10.01 – Bilera Donostia Ospitalekoekin, Osasun Saileko arduradunekin, Osakidetzarekin eta Donostiako Ospitaleko IK taldekoekin // Inplante koklearren inguruko monografikoa

14.11.18 – Ikasle Gorren jarraipenerako Batzordearen Bilera// 2014/15 ikasturtearen inguruko datuak, eta familiek eskolan diren gorren kezak, arazoa keta beharrak azaldu zituzten.

14.05.22 – EJko teknikari/ Sartu arteko bilera // Lan- taldea- Gizarte eragina eta gizarte entitateekiko kanpoko komunikazioa optimizatzea.

14.05.27— Bizkaiko 3. Sektoreko Behatokiko teknikariekin bilera// Euskadiko 3. Sektorearen Liburu Zuriaren aurkezpena

16.06.20.- Arartekoren XXV.
Urteurrena



EDEKAN lan egiten jarraitzen dugu —
Desgaitasunaren inguruko beste entitate batzuetako kideekin batera— **gure ESKUBIDEEN alde.**

Hileko bileretan, batzorde sektorialetan eta gaiarekin lotutako beste sektore batzuetan parte hartuz.

FEVAPAS HEMEN..

14.03.28.- "Krisi Ekonomiko eta Soziala. Gizarte Lanetik eskaintzen diren konponbideak" Gizarte-laneko jardunaldia

14.06.17 Bilbon, Fekoorrek antolatuta, "Desgaitasunaren Eredu Soziala" jardunaldia

AFA/ 14.10.07.- Indarkeria Sexistari dagokionez gazteen prebentziorako Beldur Barik programaren



Arartekoren XXV. Urteurrena

14.09.09.- "Familiak eta euren Beharrak" jardunaldia

14.10.03.- "Gizarte Estatua eta Gizarte Eskubideak zalantzan..."

14.05.21.- "Zeinuen mintzaira, pentsatzen laguntzen al du?" – Aspasorrek antolatuta

ELKARTE FEDERATUETAN



GENERO-BERDINTASUNA IKUSGARRI EGITEKO PROGRAMA

Tratu Onen tailerra

NORENTZAT: 13 urtera arteko

haurrentzat 22 urte arteko gazteentzat/ 23 urtetik gorako gazteentzat/ Gurasoentzat

HELBURUAK: Indarkeria matxistaren ikuspuntuak lantzea/ Gizarte-estereotipoak haustea/ Tolerantzia, errespetua eta genero -berdintasuna sustatzea/ entzuteko

desgaitasuna duten adingabeen gurasoei eta beste senide batzuek aholkatzea

JARDUERAK: 3 orduko, 3 ordu eta erdiko eta 10 orduko trebakuntza-tailerrak

EGUNAK: Azaroak 29 / Abenduak 13, goizez eta arratsaldez /Azaroak 13 eta 27 – Abenduak 11 eta 18



Abenduaren 20an, larunbata, Uleritzek ipuin

-kotalari oso berezia aurkeztuko du. Bilboko Bolunta lokaletan egingo da jarduera, 11:00etatik 13:00era.

Etxeko gazteenak fantasiaz, kolorez eta ilusioz blaitutako mundu batean sartuko dira, ondoko luxuzko gonbidatuen bidez: **Toti Mtz. de Lezea eta Iñaki Zubeldia.**

Gonbidatuak tailerlean gurekin izango dira eta euren narrazioak kontatuko dizkigute, **Estibaliz Jalonek** egindako ilustrazio bikainen laguntzarekin. Estivaliz ere gurekin izango da.

Hirurek euren borondatez hartuko dute parte.

Dena maitasun handiz antolatu da, eta harrera ona izan dezala espero dugu.

DENOK GONBIDATUTA ZAUDETE



IRTEERA

2014ko azaroaren 22an (Larunbata)

10:30 Donostiako KuboKursaaleko atea
12:00 Zenbait jarduera Kursaal "Fantasian"
13:30 Bazkaria // 16:00-18:30 TxuriUrdin

15 neska-mutilek hartu zuten parte (7 eta 14 urte bitartekoak)
Elkarteko zenbait monitorerekin joan ziren

Kursaalen neska-mutilek zenbait pertsonaia fantastiko egin zituzten, eta itzal txinatarrak egin zituzten, bertaratuak dibertitzeko asmoz. Bazkaldu ostean, TxuriUrdinera joan ziren patinatzerara, elkarrekin jolastu zuten eta aisialdiaz gozatu zuten.

EGUN BIKAINA IZAN ZEN GUZTIONTZAT



LAGUNTZAILEAK



ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza
Familia eta Komunitatea Politikarako